

Donostia. 2023ko uztailak 13.

Museum Cemento Rezolak eta Heidelberg Materialsek añorgARTEA espazioa inauguratu dute Shanti Pagolaren erakusketarekin

Irailaren 29ra arte bisita daitekeen “Shanti Pagola. Marketeriaren muga” erakusketan, artista añorgatarraren lanen aukeraketa bat dago ikusgai.

AñorgARTEA gunea sorkuntza artistikoaren hainbat diziplina lantzen dituzten Añorgako bizilagunen proposamen eta lan artistikoak ikusarazteko sortu zen.

Museum Cemento Rezolak eta **Heidelberg Materialsek** añorgARTEA gunea inauguratu dute gaur, irailaren 29ra arte bisita daitekeen “Shanti Pagola. Marketeriaren muga” erakusketarekin.

Añorgako auzora zabaltzen den gunea sorkuntza artistikoaren hainbat diziplina lantzen dituzten Añorgako bizilagunen proposamen eta lan artistikoak ikusarazteko sortu da: pintura, eskultura, marrazketa, argazkia, etab.

“Shanti Pagola. Marketeriaren muga” erakusketa, añorgARTEAn bisita daitekeen lehenbizikoa da, eta bertan, 1939an Añorgan jaio eta 1975etik egurra lantzen duen artistak marketerian egindako lanen aukeraketa bat jasotzen da. Bisitariak finezia eta zehaztasun handiko teknika horren bidez irudikatutako Añorgako eta Donostiako paisaien koadroak eta Añorga auzoko pertsonaia karismatikoen karikaturak ikusi ahal izango dituzte.

Amaran bizi den Shanti Pagola añorgatarrak, Añorga auzoaren eta Donostia hiriaren bilakaera ikusteko denbora izan du, eta hori guztia bere koadroetan erakutsi du. Erakusketak, hogeiko hamarkadako Añorga eta joan den mendeko hirurogeita hamarrekoko hamarkadako eta egungo hiriaren irudiak ikusteko eta gogoratzeko aukera ematen diguten egurrez zizelkatutako panoramikak eskaintzen dizkigu. Paisaiekin batera, erakusketak teknika horrekin egindako auzoko hirurogeita hamar bizilagunen karikaturen aukeraketa jasotzen du.

AñorgARTEA gunea

Museum Cemento Rezolak, kide den tokiko komunitateko eragile aktibo den aldetik, bizikidetzarako eta hurbiltasunerako gune izatea helburu duten programetan egiten du lan, besteak beste. Museoari eta bere inguruari buruz hitz egitean, tokiko ondarea, memoria kolektiboa eta nortasuna aipatu behar dira nahitaez. Testuinguru horretan sortu zen añorgARTEA, ondarearen, kulturaren eta tokiko ingurunearen arteko bitartekaritza-gune gisa.

Aldi baterako doako hiru erakusketa

“Shanti Pagola. Marketeriaren mugan” erakusketaz gain, Museum Cemento Rezolak doan bisita daitezkeen hiru erakusketa ditu: “Añorga Escolar. Auzoko aldizkaria”, “Hariak Sortzen Amassorain Ikastola Añorgatarrak elkarrizketatzen” eta “Biodibertsitatea harrobietan. Quarry Life Saria”

“Añorga Escolar. Auzoko aldizkaria” 1946. urteaz geroztik Añorgako historiaren bozeramaile den abentura sortzaile paregabe horretan barrena egindako ibilbidea da. Añorgako bizilagunek kontatutako, marraztutako eta argazkiz hornitutako historia da. Bere testu dibertigarri eta burutsuek, ezein auzokidek ihes egiten ez duen kronikek, zuri-beltzeko karikaturek, kolore guztietako azalek eta Añorgarekiko maitasunak museoak ezagutzera gonbidatzen duen proiektu paregabea bihurtzen dute argitalpen hori.

“Hariak Sortzen Amassorain Ikastola Añorgatarrak elkarrizketatzen”, Añorgako Amassorain ikastolarekin elkarlanean egindako proiektua da, eta bertan Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek Añorgako auzo-komunitatearen zenbait bizi-esperientzia bildu eta dokumentazio-lana egin ondoren, eta bidaiarien erreportari bihurtu ondoren, beste toki batzuetatik etorritako Añorgako bizilagunen kultura ezberdinak hurbiltzen dituzte: Tunisiatik, Mendebaldeko Saharatik, Frantziatik, Badajozetik, Txiletik eta Ukrainatik. Erakusketa hori “Hariak Sortzen” proiektuaren parte da, tokiko hezkuntza komunitateari zuzendutako ondare sentsibilizaziorako urteroko proiektua, belaunaldien arteko gurutzaketa gunea eta iragana eta oraina uztartuz belaunaldi ezberdinak lotzen dituen bidaia.

“Biodibertsitatea harrobietan. Quarry Life Saria” izeneko erakusketak harrobien biodibertsitatea ematen du ezagutzera. Harrobiek landaredia- eta fauna-espezie ezberdinentzat duten balio handiko espazioa erakusten du, eta Quarry Life Award sarira aurkeztutako proiektu berritzaileak aurkezten ditu. Saria Heidelberg Materialek sustatzen du, eta harrobien biodibertsitatea aztertzeko eta bultzatzeko ikuspegi berritzaileak bultzatzen ditu. Halaber, meatzaritzaren ekologiar buruzko kontzientzia sortzea du helburu. Erakusketa bi arlotan banatuta dago: informatiboa eta interaktiboa, azken hori edukietara modu ludikoagoan hurbiltzeko.

Museum Cemento Rezolari buruz

Museuma oso toki eta eraikin berezian dago, Cementos Rezolaren fabrikak 1948an langileen seme-alabentzat eraiki zuen eskola zaharrean. 1997an, eskola erabilerarik gabe geratu ondoren, fabrikak Peña Ganchegui estudioari agindu zion hura birmoldatzeko, museo gisa izango zuen funtzio berrira egokitzeko. Erabilera berria, baina helburu bera: inguruko jendearen artean ezagutza eta kultura zabaltzea.

Izan ere, eraikina, fabrikak bere ingurunearekin duela 170 urtetik duen konpromiso sozialaren sinbolo da. Añorgako **Heidelberg Materials** fabrika da hiriko industriaren adierazle bizi bakarra, eta beti izan du konpromiso sendoa eta lotura zuzena haren historiarekin; izan ere, bertako labeetatik atera da Euskadiko azken mendeko obrarik adierazgarrienei bizia eman dien zementua.

Museoak lehen hezkuntzako ikasleentzako berariazko hezkuntza-programa bat du, baita bigarren hezkuntzarako eta lanbide- heziketarako jarduerak ere. Ikastetxe bakoitzaren beharrei erantzuteko asmoz, bisita komentatuak eskaintzen dira bertako espazio eta tailer egokitueta.

Heidelberg Materials konpainiaren Espainiako datuak

Heidelberg Materials eraikuntzarako material eta soluzio integratuen munduko fabrikatzaile handienetakoa da, eta posizio liderrak ditu zementuaren, agregakinen eta hormigoien merkatuan.

Heidelberg Materials aitzindaria da karbonoaren neutraitasunerako bidean, eta 2050erako hormigoiguztia, gure azken produktua, karbonoan neutroa izateko helburua du.

Espanian, enpresaren presentzia 2 zementu fabrikak, 6 harrobik eta 4 hormigoigoi plantak osatzen dute, eta horiei esker integrazio bertikal ezin hobea du gure merkatu-eremuan. 170 urteko tokiko esperientziak gure bezeroei hiri eta azpiegitura seguruak, jasagarriak eta abangoardistak eraikitzeke aukera ematen duten kalitatezko eraikuntza-soluzioak eskaintzean oinarritutako lidergoa bermatzen du. Gaur egun, gure enpresak bere ekintza guztien erdigunean jartzen ditu ingurumenarekiko, deskarbonizazioarekiko eta ekonomia zirkularrarekiko erantzukizuna.

Museum Cemento Rezolaren irekiera ordutegia

Asteartetik larunbatera zabalik, 10:00etatik 14:00etara.

Astelehen, igande eta jaiegunetan itxita.

Sarrera doan.

Heidelberg Materials

Prensa Kabinetea

MBN Comunicación, S.L.

Josean Aguado

Telefono-zenbakia: 94 435 63 30



Heidelberg
Materials



Museum
Cemento
Rezola

Prensa oharra

Helbide elektronikoa: j.aguado@grupombn.com